

## **Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 2004/1.FORU-ARAU (BAO Martxoaren 11koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2004.eko otsailaren 24eko osoko bilkuran, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 2004/1.Foru-Araua, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

### **IRABAZIZKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDEARI ETA MEZENASGOARI EMANDAKO ZERGA-PIZGARRIEI BURUZKO OTSAILAREN 24KO 2004/1.FORU-ARAU**

#### **HITZAURREA**

Azken hamarkada honetan, irabazizkoak ez diren erakunde pribatuak garapen handia izan dute. Gizarteak gero eta kontzientzia handiagoa dauka, sektore pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartu behar izateari buruz, sektore publikoari laguntzeko, sektore hori batzuetan ez baita gauza Ongizate Gizartea deritzonaren babesean sorturiko gizarte-beharrizan gero eta handiagoak betetzeko; horren ondorioz, erakunde berriak sortu eta hiritarrek gero eta gehiago bultzatzen dituzte erakundeak.

Aurrerakada horren eraginez, defase bat egon da, Herri Onurarako Fundazioen eta Elkarteen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauak onetsitako arauketan; horrenbestez, foru arau honek araudi modernoagoa sartu du bestearen ordean, bere eremuaren barruko erakundeak segurtasun juridikoa eskaintzeko, erakundeak araubidea aplikatzeko bete behar dituzten baldintzak malgutzeko eta interes orokorreko jardueretarako gizarte-ekarpenei aplikatzeko moduko zerga-tratamendua hobetzeko.

Foru Arauak hogeita hamaika artikulua ditu, hiru titulutan egituratuta. I. tituluan helburua, aplikazio-eremua eta araudi ordeztaila jasotzen dira; Foru Arauak bi titulu luze erabiltzen ditu, bere xedea osatzen duten bi helburuak arautzeko, hau da, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araudia eta mezenasgorako zerga-pizgarriak.

II. tituluak irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araudia arautzen du, eta hiru kapitulutan banatuta dago. Lehenengo kapituluan, herri erabilera duten fundazioek eta elkarreek foru arau honen ondoretarako irabazizkoak ez diren erakundetzat hartzeko eta, beraz, bertan ezarritako zerga-araubidean sartzeko bete behar dituzten baldintzak zehazten dira.

Aukera borondatezkoa da, eta nahikoa da, ezarritako baldintzak bete ondoren, berori Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraztea, eta, horrenbestez, desagertu egiten da lehen aplikatzen zen erreguzko izaera.

Ezarritako baldintzen artean, lehenengo araudiaren kasuan bezala, hauxe nabarmentzen da: ustiapen ekonomikoen eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondoriozko errenten 100eko 70a erakundearen helburuetara bideratzea, eta, berritasun gisa, salbuesita gelditzen dira erakundeak bere jardura garatzeko erabilitako ondasun higiezinak besterentzearen ondoriozko zen batekoak, horiek helburu bera duten beste higiezin batzuetan inbertitzen direnean.

Lau urteko epea finkatzen da hori betetzeko, eta, salbuespentzat, aipagarriak dira hiru urte baino gehiagotan mantendutako balioen kostu bidezko eskualdaketa eraginezko errentak, eta horietarako epea hamar urtekoa da.

Oro har, erakundeek ezin dute tratu berezirik eman eta euren jardueren jasotzaile nagusiak ezin dira erakundeen sortzaileak edo zuzendaritza-taldeko kideak nahiz horien familiakoak izan.

Gainera, zuzendaritza-taldeetako kideek eta erakundea merkataritza-sozietateetan ordezkatzen duten administratzaileek doanik bete behar dute kargua, baina lanak eragindako gastuen ondoriozko konpentsazioa jaso ahal izango dute.

Erakundea deseginez gero, desegindako erakundearen ondare osoa mezenasgoaren onuraduntzat hartzen den erakunde bati eman beharko zaio, Foru Arauan ezarritako baldintzen arabera, edo bestela, interes orokorreko helburuak dituen erakunde publikoren bati emango zaio.

Azkenik, urteroko memoria ekonomikoa egin behar da, eta horren barruan, kategorien eta proiektuen arabera antolatuta, kasuan kasuko ekitaldiko diru-sarrerak nahiz gastuak eta merkataritza-erakundeetan izandako partaidetzaren ehunekoa jasoko dira.

II. tituluko II. kapituluan, irabazizkoak ez diren erakundeek Sozietateen gaineko Zergan duten ordainketa berezia aztertzen da, eta berori arautzen duen Foru Araua dago aipatuta.

Zerga horretan, salbuetsita daude kontraprestaziorik gabe lor tutako diru-sarreraren, ondare higigarriaren nahiz higiezinaren, ondasunen zein eskubideen lorpenaren edo eskualdatzearen eta salbuetsitako ustiapen ekonomikoen eraginezko errentak; baita, salbuetsitako errenten ondoriozkoak izan arren, irabazizkoak ez diren erakundeei eratziki behar zaizkienak ere.

Ustiapen ekonomikoen eraginezko errenten tratamendua zer garaubide berriaren berritasuna da, eta salbuespen bat ezartzen da erakundearen helburua betetzearen ondorioz garatzen diren etarako, izaera lagungarria edo osagarria dutenak ere barne. Horri dagokionez, lagungarritzat edo osagarritzat hartuko dira gehienez jota erakundearen eragiketa guztien bolumenaren 100eko 25era iristen direnak. Halaber, salbuetsita egongo dira garrantzi txikikotzat hartutako ustiapenak, eta horien eragiketen bolumenak ez ditu inondik inora ere 30.000 euroak gaindituko.

Zerga-oinarriari aplikatzeko moduko tasari dagokionez, lehen go araudian jasotako 100eko 10a mantentzen da.

III. kapituluko artikulua bakarrean (tokiko zergei buruzko artikulua), muga batzuk ezabatzen dira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuespenak aplikatzeari dagokionez; gainera, salbuespen bat sartzen da Hiri Izaerako Lurren Balioa Handitzeari buruzko Zergan, irabazizkoak ez diren erakundeetarako.

III. tituluak mezenasgoari zerga-pizgarriak arautu eta horien jasotzaileak izan daitezkeen erakundeen zerrenda egiten du.

Dohaintzen eta ekarpenen zerga-araubideari buruzko kapituluan, eskubideen dohaintzarako zerga-pizgarrien emakida sartzeko da berritasuntzat, eta kontraprestaziorik gabe egindako ondasunen, eskubideen eta balioen gaineko gozameneko errege-eskubideak sortzeko zerga-pizgarriak ere sartzeko dira.

Kontzeptu horien ondoriozko kentzeen oinarria finkatu ondoren, dohaintzen, dohaintzen eta ekarpenen zenbatekoaren 100eko 30eko kentzea ezartzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotan, eta 100eko 25eko kentzea, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, egoitza iraunkorrik ez duten subjektu pasiboentzat.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek egindako ekar penei eta egoitza iraunkorra duten subjektu pasiboentzako Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, indarreko trata menduari jarraitu arren, bi zerga horiek partida kengarritzat egituratzen dira, zerga-oinarria zehazteko.

III. kapituluan, mezenasgoko zenbait jarduerari aplikatzeko moduko zerga-hobariak aztertzen dira; horien barruan, mezenasgoaren onuraduntzat kalifikaturiko erakundeekin interes orokorreko jardueretan egindako enpresa-lankidetzako hitzarmenak eta interes orokorrerako egindako

gastuak sartzen dira, eta berritasuntzat, eza batu egiten dira lehen gastu kengarritzat hartzen zirenetarako eza rritako mugak. Halaber, dohaintzan emateko arte-lanen eskuratzearako tratamendua manendu egiten da.

IV. kapituluan, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero lehentasunezko mezenasgokotzat hartutako jarduerak garatzeko araudia ezartzen da, eta berritasuntzat, interes publiko bereziko gertaeretara ko laguntza-programak sartzen dira.

Horri dagokionez, azken artikulua elkarrekotasun-irizpide oro korra finkatzen du lehenengoz, Estatuak eta beste foru lurralde batzuek lehentasunezko gertaerak eta interes publiko berezia duten gertaeren lagungarritzat (hurrenez hurren) hartutako jarduerari eta programei dagokienez, baldin eta horien jardueran Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako jarduerak eta programak jasotzen badira.

Xedapen gehigarrietan, alde batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ondare Eskualdatzeen eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoen gaineko Zer gari buruzko foru arauetako artikulua batzuk aldatzen dira, baita kooperatiben zerga-araubideari buruzko Foru Arauko artikulua batzuk ere; beste alde batetik, zenbait erakunderen obra sozialari aplikatzeko moduko berezitasunak ezartzen dira: aurrezki-kutxak, kirol-elkar teak, erakunde erlijiosoen fundazioak eta Eliza Katolikoaren eta beste eliza, konfesio nahiz komunitate erlijioso batzuen zerga araubidea.

## **I. TITULUA**

### **HELBURUA, APLIKAZIO EREMUA ETA ARAUDI ORDEZTAILEA**

#### **1. artikulua. Helburua.**

Foru Arauaren helburua bertan aipatutako irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubidea arautzea da, horien funtzio soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Era berean, mezenasgorako zerga-pizgarriak ere arautu nahi ditu. Foru Arauaren ondoretarako, mezenasgoa interes orokorreko jardueretako partaidetza pribatua da.

#### **2. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Foru arau honetan ezarritakoa aplikagarria izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiari lotuta dauden subjektu pasiboen kasuan, honako honetan ezarritakoa dela bide: Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko 2. artikuluan eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauko 1. artikuluan.

#### **3. artikulua. Araudi ordezailea.**

Foru arau honetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, oro har, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia aplikatuko da.

## **II. TITULUA**

### **IRABAZIZKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEN ZERGA ARAUDI BEREZIA**

#### **I. KAPITULUA**

##### **ARAU OROKORRAK**

#### **4. artikulua. Irabazizkoak ez diren erakundeak.**

Foru arau honen ondoretarako, irabazizkoak ez diren erakundetzat hartuko dira herri erabilerakotzat hartutako fundazioak eta elkar teak, baita horien federazioak eta elkarteak ere, baldin eta interes orokorreko helburuak eduki, erregistro egokian inskribaturik egon eta hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## 5.artikulua. Irabazizkoak ez diren erakundeen baldintzak.

Aurreko artikuluan aipaturiko erakundeak, ondoren adierazi- tako baldintzak betetzen badituzte, irabazizkoak ez diren erakundetzat hartuko dira, foru arau honen ondoretarako:

- 1.a. Honako errenta eta diru-sarrera hauen (100eko 70a gutxienez) interes orokorreko helburuetarako erabiltzea:
  - a) Garatzen dituzten ustiapen ekonomikoen errentak.
  - b) Beren titulartasuneko ondasunak eta eskubideak eskual-datzearen ondoriozko errentak. Errenta horiek kalkulatzean, honako hauek ez dira jasoko:
    1. Ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketa lor-tutakoak, erakundearen jardura edo helburu nagusia ondasun horietan garatzen denean, baldin eta eskualdatze horren zenbatekoa halako ondasunetan eta eskubideetan inbertitzen bada berriro.
    2. Tituluaren, balioen, eskubide ekonomikoen edo izaera higigarriko ondasunen kostubidezko eskualdaketa lortutakoak, irabazteko asmorik gabeko erakundearen ondare horniduran sartuta badaude edo sortze-edo estatutu-helburuei zuzenean eta modu iraunkorrean lotu bazaizkie; eta, betiere, baldin eta kontra-presazioa hornidura izaera edo afekzio bera duten ondasun edo eskubideetan inbertitzen bada berriro.
  - c) Beste edozein kontzepturen ondorioz lortutako diru-sarrerak, horiek lortzeko egindako gastuak kenduta. Diru-sarrera horiek lortzeko egiten diren gastuen barruan, honako honen zati proportzionala sartuko da: kanpoko zerbitzuen eraginezko gastuak, langileria-gastuak, kudeaketa-gastuak, finantza-gastuak eta zergak, horiek diru-sarrerak lortzeko lagungarriak diren neurrian. Kalkulu horretatik kanpo geldituko dira, irabazizkoak ez diren erakundearen estatutuaren jasotako helburuak edo xedea betetzeko egindako gastuak. Diru-sarrearen kalkuluan ez dira kontuan hartuko erakundea eratzeko unean edo geroago ondare-dohaintzaren kontzeptutan jasotako ekarpenak edo dohaintzak.

Irabazizkoak ez diren erakundeek ondare-dohaintza edo erreserbak handitzeko erabiliko beharko dituzten gainerako errentak eta diru-sarrerak.

Baldintza hori betetzeko epea, bestalde, kasuan kasuko errentak nahiz diru-sarrerak lortzeko ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori amaitu osteko hurrengo lau urteen artekoa izango da, hiru urtetik gorako antzinatasuna duten balioen kostu bidezko eskualdaketa lortutako errenten kasuan izan ezik, eta kasu horretan epea hamar urtekoa izango da.

- 2.a. Egindako jardura xedeari edo estatutuaren jasotako helburuei lotu gabeko ustiapen ekonomikoen garapenean ez oinarritzea. Baldintza hori betetzeko, beharrezkoa izango da ekitaldiko eragiketen bolumenak (estatutuaren xedeari edo helburuari lotuta ez dauden salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen multzoari dagokionez) erakundearen eragiketa guztien bolumenaren 100eko 40a ez gainditzea, baldin eta salbuetsi gabeko ustiapen ekonomiko horien garapenak lehiaren defentsari buruzko arauak urratzen ez baditu, jardura berbera egiten duten enpresei dagokienez.

Foru Arau honen ondoretarako, irabazizkoak ez diren erakundeek ustiapen ekonomikoak garatzen dutela joko da, produkzio bideak eta giza baliabideak (edo biotako bat) euren kontura antolatzen dituztenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko. Erakundearen ondare higiezinaren errentamendua ez da ustiapen ekonomikoa izango, ondore horietarako.

- 3.a. Sortzaileak, elkartuak, nagusiak, estatutu-ordezkariek, gobernu-organotako kideak eta ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera osaturiko egitatezko bikoteak edo laugarren mailara arteko ahaideak (maila hori ere barne) erakundeek egindako

jardueren jasotzaile nagusiak ez izatea, eta erakundearen zerbitzuak erabiltzeko hobaririk ez edukitzea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari loturiko jardueretan, ezta laguntza sozialeko edo kiroleko jardueretan (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko 1. ataleko 8. eta 13. zenbakietan aipaturikoak), eta Euskal Herriko Kultur Ondarearen edo Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunak kontserbatzeko eta berritzeko helburua duten funtzioei ere ez zaie aplikatuko, nahiz eta Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko edo kasuan kasuko Autonomia Erkidegoko Legeko baldintzak bete.

- 4.a. Nagusiaren, estatutu-ordezkararen eta gobernu-organoko kidearen karguak doakoak izatea, euren funtzioaren ondoriozko gastu justifikatuak itzultzeko eskubidearen kalterik gabe; gainera, kontzeptu horren eraginez jasotako zenbatekoek ezin izango dituzte gainditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotako mugak (zergapetzetik salbuetsitako saritzat hartzeko).

Herri onurakotzat harturiko elkarteen kasuan, ordezkaritza-organoei ordainketak jaso ahal izango dituzte, hori fondo eta dirulaguntza publikoen kontura egiten ez badute.

Nagusiek, estatutu-ordezkariek eta gobernu-organoko kideek ordainketak jaso ahal izango dituzte erakundetik, zerbitzuak ematearen ondorioz (lan-harremanaren eremuan emandako zerbitzuak ere barne), baina zerbitzuok ez dute zerikusirik izango Patronatuko edo ordezkaritza-organoko kideetatik dituzten funtzioak betetzeko eman beharreko zerbitzuekin, eta gainera bete egin beharko dira erakundea arautzen duten arauetan ezarritako baldintzak.

Pertsona horiek ezin izango dute parterik hartu erakundearen emaitza ekonomikoetan, ez eurenez eta ez bitarteko pertsona edo erakunde baten bidez.

Zenbaki honetan ezarritakoa, halaber, erakundea beste merkataritza-sozietate batzuetan ordezkatzen duten administratzaileei ere aplikatuko zaie, baldin eta administratzaileak izatearen ondorioz jasotako ordainketak euren erakundeari itzultzen ez badizkiote. Nolanahi ere, administratzaileak jasotako ordainketa salbuetsita egongo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, eta ez da zerga horren konturako atxikipenik egin beharrik egongo.

- 5.a. Deseginez gero, ondare osoa mezenasgoaren onuraduntzat hartutako erakunderen bati ematea, foru arau honetako 18-26 artikuluetan (biak barne) ezarritakoaren arabera; edo fundazio-izaera ez duten eta interes orokorreko helburuak dituzten erakunde publikoari ematea, baldin eta hori fundazio-negozian edo desegindako erakundearen estatutuetan berariaz jasota badago, eta irabazizkoak ez diren erakunde horiei, aplikatu ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 2/1996 Foru Arauko 90. artikuluko 1. ataleko c) letran ezarritako zerga-araubidea aplikatuko zaie.

Foru Arau honen ondoretarako, ez dira inondik inora ere irabazizkoak ez diren erakundetatik hartutako ondarea berori eman duenari edo horren jaraunslari edo legatu-hartzaileei itzultzeko aukera (deseginez gero) ematen duen araubide juridikodun erakundeak, itzulketa hori mezenasgoaren onuraduna den erakunde baten alde ezarrita dagoenean izan ezik, foru arau honetako 18-26 artikuluetan (biak barne) ezarritakoaren arabera.

- 6.a. Urtero memoria ekonomikoa egitea eta bertan ekitaldiko diru-sarrerak nahiz gastuak adieraztea (kategorien eta proiektuen arabera identifikatu ahal izateko), baita merkataritza-erakundeetan duten partaidetzaren ehunekoa ere.

Kontabilitateko araudi aplikagarriaren eraginez urteroko memoria egin behar duten erakundeek zenbaki honetan aipaturiko informazioa jaso beharko dute memoria horretan.

Arauen bidez, memoria ekonomiko horren edukia, berori aurkezteko epea eta berori jasoko duen organoa ezarriko dira.

#### **6.artikulua. Zerga-egoitza.**

Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-egoitza euren egoitza soziala izango da, baldin eta erakundearen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizaturik badago. Bestela, egoitza hori kudeaketa eta zuzendaritza egiteko lekua izango da.

Zerga-egoitzaren lekua zehaztu ezin denean, lehenengo irizpideetan oinarrituz, erakundeen zerga-egoitza Bizkaian dagoela joko da, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan edukita, Bizkaiko Lurralde Historikoan beste bi lurralde historikoetariko bakoitzean baino balio ibilgetu handiagoa badute.

## **II.KAPITULUA SOZIJATEEN GAINKO ZERGA**

#### **7.artikulua. Araudi aplikagarria.**

Kapitulu honetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, irabazizkoak ez diren erakundeei Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudia aplikatuko zaie.

#### **8.artikulua. Salbuetsitako errentak.**

Foru arau honetan aipatutako irabazizkoak ez diren erakundeek lortutako errentak salbuetsita egongo dira Sozietateen gaineko Zergan, honako kasu hauetan:

##### **1.a. Ondoko diru-sarrera hauen ondoriozkoak:**

- a) Erakundearen helburuetan laguntzeko jasotako dohaintzak, ondare-dohaintzaren kontzeptuan jasotako ekarpenak edo dohaintzak ere barne, erakundea sortzeko unean edo geroago; baita foru arau honetako 26.artikuluaren eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrean aipaturiko publizitate-babeseko kontratuetan arauturiko enpresa-lankidetzako hitzarmenen eraginez jasotako dirulaguntzak ere.
- b) Elkartuek, laguntzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta horiek salbuetsi gabeko ustiapen ekonomiko baten eraginezko prestazioa jasotzeko eskubideari ez badagozkio.
- c) Dirulaguntzak, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak finantzatzeko ematen direnak izan ezik.

**2.a.** Erakundearen ondare higigarriaren eta higiezinaren eraginezkoak, esate baterako, sozietateen, interesen, kanonen eta alokairuen hobarietako dibidenduak eta partizipazioak.

**3.a.** Ondasunak edo eskubideak edozein titulurengatik lortzearen edo eskualdatzearen ondoriozkoak, erakundea desegitearen eta likidatzearen ondorioz lortutakoak ere barne.

**4.a.** Hurrengo artikuluan aipaturiko salbuetsitako ustiapen ekonomikoetan lortutakoak.

**5.a.** Zerga-araudiaren arabera irabazizkoak ez diren erakundeei eratxiki edo egotzi behar zaizkienak, baldin eta artikulua honetako lehenagoko atalen batean aipatu diren salbuetsitako errenten ondoriozkoak badira.

#### **9.artikulua. Salbuetsitako ustiapen ekonomikoak.**

Irabazizkoak ez diren erakundeek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, honako ustiapen ekonomiko hauen eraginezkoak direnean:

1.a. Erakundearen helburua edo xedea betetzeko garatzen diren ustiapen ekonomikoen eraginezkoak.

2.a. Irabazizkoa ez den erakundearen salbuetsitako ustiapen ekonomikoaren edo estatutuetako helburuak nahiz xedea betetzeko jarduera ekonomikoen lagungarriak edo osagarriak diren ustiapen ekonomikoen eraginezkoak.

Ustiapen ekonomikoak ez dira lagungarriak edo osagarriak izango, guztien multzoari dagokion ekitaldiko eragiketen bolumenak erakundearen eragiketa guztien bolumenaren 100eko 25a gainditzen duenean.

3.a. Garrantzi txikiko ustiapen ekonomikoen ondoriozkoak. Ekitaldiko eragiketen bolumenean 30.000 eurora iristen ez direnak halakotzat hartuko dira.

#### **10.artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.**

1. Irabazizkoak ez diren erakundearen Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriari, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ondoriozko errentak sartuko dira.

2. Sozietateen gaineko zergari buruzko araudi orokorrean ezarritakoak ez ezik, honako hauek ere ez dira gastu kengarritzat hartuko:

a) Salbuetsitako errentei soilik egozteko moduko gastuak.

Salbuetsi gabeko errentei neurri batean egozteko modukoak diren gastuak kengarriak izango dira, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ekitaldian lortutako eragiketen bolumenaren ehunekoan, erakundearen eragiketa guztien bolumenari dagokionez.

b) Zergapeturiko ustiapen ekonomikoetara lotu gabeko ondare-elementuen amortizaziorako zenbatekoak.

Kanpoko jarduerak egiteari neurri batean lotuta dauden ondare-elementuen kasuan, amortizaziorako zenbatekoak ez dira kengarriak izango, ondare-elementua kasuan kasuko jarduera egiteari lotutako ehunekoan.

c) Lotu gabeko ustiapen ekonomikoen emaitzen eta, hain zuzen ere, soberakinen aplikazioa osatzen duten zenbatekoak.

#### **11.artikulua. Balorazio-arauak.**

Irabazizkoa ez den erakunde bat desegitearen ondoriozko ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, irabazizkoa ez den beste erakunde bati eskualdatzen zaizkionean, foru arau honetako 5.artikuluko 5.zenbakian ezarritakoaren arabera, desegindako erakundearen eskualdatzea egin baino lehen zituzten balio berberetan baloratuko dira (zerga-ondoreetarako), eta desegindako erakundeak eskuratze-data mantenduko du.

#### **12.artikulua. Zergapetze-mota.**

Salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen eraginezko errentei dagokien zerga-oinarri positiboa 100eko 10eko tasan zergapetuko da.

#### **13.artikulua. Kontabilitateko betebeharrak.**

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen errentak lortzen dituzten erakundeek (irabazizkoak ez direnak) zerga hori arautzen duten arauetan ezarritako kontabilitateko betebeharrak izango dituzte. Erakunde horien kontabilitatea salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen diru-sarrerak eta gastuak identifikatzeko moduan eramango da.

#### **14.artikulua. Atxikipenari lotu gabeko errentak.**

Four arau hau dela bide salbuetsita dauden errentak ez dira atxikipenari edo konturako diru-sarrerari lotuta egongo. Arauz, irabazizkoak ez diren erakundeen kreditatze-prozedura zehaztuko da, atxikitzeke betebeharra salbuesteko.

#### **15.artikulua. Aitorpena egin beharra.**

Titulu honetan ezarritako zerga-araubidea aukeratzen duten erakundeek euren errenta guztiak (salbuetsiak eta salbuetsi gabek) aitortu beharko dituzte, Sozietateen gaineko Errentaren arabera.

#### **16.artikulua. Zerga-araubide bereziaren aplikazioa.**

1. Irabazizkoak ez diren erakundeak titulu honetan ezarritako zerga-araubide berezian sar daitezke, arau ezarritako epean eta moduan.

Aukera hori gauzatutakoan, erakundea behin betiko geldituko da araubide honi lotuta, hurrengo zerga-aldietan, baldin eta foru arau honetako 5. artikuluko baldintzak betetzen badira, eta horren aplikazioari uko egin ezean (arau ezarritakoaren arabera).

2. Zerga-araubide bereziaren aplikaziorako, horri buruzko egitatezko baldintzak eta kasuak bete beharko dira, eta horiek erakundeak probatuko ditu.
3. Foru arau honetako 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete ezean, erakundeak urratze hori gertatzeko ekitaldiari dagozkion kuota guztiak ordaindu beharko ditu, Sozietateen gaineko Zerga, toki zergak eta Ondare Eskualdatzeen eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoaren gaineko Zerga kontuan hartuta, zerga horiei buruzko araudiaren arabera, eta bidezko berandutza-interesak ere ordaindu beharko ditu.

Atal honetan ezarritako betebeharra, bestalde, behar bezala aplikatu gabeko emaitzak eta diru-sarrerak lortzeko ekitaldiari dagozkion kuotei buruzkoa izango da, foru arau honetako 5. artikuluko 1. zenbakian ezarritako baldintza denean, baita urratzea gertatzeko ekitaldiari eta aurreko hiru ekitaldiei dagozkien kuotei buruzkoa ere, artikuluko 5. zenbakian ezarritako baldintza denean, bidezko zehapen guztien kalterik gabe.

### **III.KAPITULUA TOKI ZERGAK**

#### **17.artikulua. Toki-zergak.**

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira irabazizkoak ez diren erakundeen titulartasuna duten ondasunak, zerga horri buruzko araudian ezarritakoaren arabera, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoei lotuta daudenak izan ezik.
2. Irabazizkoak ez diren erakundeak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, foru arau honetako 9. artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek altaren aitorpena aurkeztu beharko dute zerga horren matrikulan, baita baxaren aitorpena ere, jarduerari amaiera emanaz gero.
3. Hiri Izaerako Lurren Balioa Handitzearen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira kasuan kasuko gorakadak, baldin eta zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra irabazizkoa ez den erakunde batek badauka.

Lurren eskualdatzeak edo horien gaineko jabaria mugatzeko gozamenezko errege-erakundearen eraketa nahiz eskualdatzea denean, horiek irabazizkoa ez den erakunde batek kostu bidez egiten dituen arauak, zerga horretako salbuespena izateko, beharrezkoa izango da lur horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzea.



4. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeek aurreko artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera kasuan kasuko zerga-administrazioari, udal eskudunari edo Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraztea eta titulu honetan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.
5. Artikulu honetan ezarritakoa, berriz, Toki Ogasunei buruzko foru araudian eta udal-zerga bakoitzari buruzko foru arauetan ezarritako salbuespenen kalterik gabe ulertuko da.

### **III. TITULUA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK**

#### **I. KAPITULUA ERAKUNDE ONURADUNAK**

##### **18. artikulua. Mezenasgoaren erakunde onuradunak.**

Titulu honetan ezarritako zerga-pizgarriak, aplikatu ere, titulu honetan ezarritako baldintzak bete eta honako erakunde hauen alde egiten diren dohainei, dohaintzei eta ekarpenei aplikatuko zaizkie:

- a) Foru arau honetako II. tituluaren ezarritako zerga-araubidea aplikagarri duten eta irabazizkoak ez diren erakundeak.
- b) Bizkaiko Foru Aldundia, gainerako foru aldundiak, Estatuaren autonomia erkidegoak, toki-erakundeak eta administrazio horien guztien barruan dauden eta euren antzekoak diren erakunde autonomoak.
- c) Unibertsitateak eta horietara atxikitako zentroak.
- d) Cervantes Institutua, Institut Ramon Llull eta antzeko helburuak dituzten gainerako erakundeak, euren hizkuntza ofizial berezia duten autonomia erkidegoetan.
- e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta horren barruko Errege Akademiak, baita euren hizkuntza ofizial berezia duten autonomia erkidegoetako erakundeak ere, Euskaltzaindiakoen antzeko helburuak dituztenean.
- f) Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Real Sociedad Bascongada de Amigos del País eta Labayru Institutua.
- g) Espainiako Komite Olinpikoa eta Espainiako Komite Paralinpikoa.
- h) Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala.

#### **II. KAPITULUA DOHAINZEN ETA EKARPENEN ZERGA ARAUBIDEA**

##### **19. artikulua. Dohain, dohaintza eta ekarpen kengarriak.**

1. Honako dohain, dohaintza, ekarpen ezeztazekin, huts eta soilak, eta dohainezko zerbitzugintza hauek, aurreko artikuluan aipatutako erakundeen alde egindakoek, titulu honetan ezarritako kenteak egiteko eskubidea emango dute:
  - a) Dirutan, ondasunetan eta eskubideetan egindako dohainak eta dohaintzak.
  - b) Elkarteetan afiliatzeko kuotak, oraingo edo geroko prestazioren bat jasotzeko eskubidearekin bat ez datozenak.

- c) Ondasunen,eskubideen edo balioen gaineko gozameneko eskubide errealaren eraketa,kontraprestaziorik gabe egindakoa.
  - d) Euskal Herriko Kultura Ondarearen barruko ondasunen dohainak edo dohaintzak,horiek Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipaturiko inbentario orokorraren barruan edo Kultura Ondasunen Erregistroaren barruan daudenean;baita Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunen dohainak edo dohaintzak ere,baldin eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipaturiko inbentario orokorraren barruan edo kultura-intereseko ondasunen Erregistro Orokorraren barruan badaude,eta autonomia erkidegoek aitortutako edo inskribaturiko kultura-ondasunen dohainak edo dohaintzak ere bai,euren arauetan ezarritakoaren arabera.
  - e) Besteak beste museoei lotutako jarduerak egiteko eta ondare historiko artistikoa sustatzeko nahiz hedatzeko ekimenak egiten dituzten erakundeen aldeko kultur ondasunen (kalitate handikoak) dohainak edo dohaintzak.
  - f) Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjeto pasiboek egindako dohainezko zerbitzugintza,zergadunok egoitza iraunkorraren bitartez dihardutenean,beti ere Foru Arau honen 22 eta 23.2 artikuluetan xedatutakoaren ondorenetarako soilik.
2. Dohaintza Kode Zibilean jasotako kasuren baten ondorioz ezeztatzen denean,dohaintza-emaileak aplikaturiko kentzei dagozkion kuotak ordainduko ditu,ezeztapena gertatzeko zerga aldian,eta berandutza-interes guztiak ere ordaindu beharko ditu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa bazkidea nahita banantzeko kasuetan aplikatuko da,bazkide horrek kuota arruntak ez diren beste ekarpen batzuen eraginezko ondare-partaidetza jasotzen duenean.

## **20.artikulua. Dohainen,dohaintzen eta ekarpenen ondoriozko kentzeen oinarria.**

1. 18.artikuluari aipatutako erakundeen alde egindako dohainen,dohaintzen,ekarpenen eta dohainezko zerbitzugintzen ondoriozko kentzeen oinarria hauxe izango da:
- a) Diruzko dohaintzetan,horien zenbatekoa.
  - b) Ondasunen edo eskubideen dohaintzetan edo dohaintzetan,horiek eskualdatzeko unean zuten kontabilitateko balioa eta, bestela,Ondarearen gaineko Zergari buruzko arauen arabera zehaztutako balioa.
  - c) Ondasun higiezinaren gaineko gozameneko eskubide erreal baten eraketan,gozamenak irauteko zerga-aldi bakoitzean katastro-balioaren 100eko 2a aplikatzearen ondoriozko urteroko zenbatekoa,eta zerga-aldi bakoitzari dagokion egun kopurua modu proportzionalan zehaztuko da.
  - d) Balioen gaineko gozameneko eskubide erreal baten eraketa,gozamenak irauteko zerga-aldi bakoitzean gozamendunak jasotako dibidenduen edo interesen urteroko zenbatekoa.
  - e) Beste ondasun eta eskubide batzuen gaineko gozameneko eskubide erreal baten eraketan,diruak ekitaldi bakoitzean duen legezko interesa gozamenaren balioari (berori eratzeko unean duena) aplikatzearen ondoriozko urteroko zenbatekoa,Ondare Eskualdaketen eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoen gaineko Zergari buruzko arauen arabera.
  - f) Euskal Herriko Kultur Ondarearen barruko ondasunen dohaintzetan edo dohaintzetan,Eusko Jaurlaritzak egindako balorazioa; Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunen dohaintzetan edo dohaintzetan,Kalifikazio,Balorazio eta Esportazio Batzordeak egindako balorazioa,eta autonomia erkidegoetako Ondare Historikoaren

barruko Ondasunen dohainetan eta dohaintzetan,organo eskudunek egindako balorazioa.

Aurreko paragrafoan aipaturiko organoen baloraziorik ez dagoenean, hori Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak egingo du.

- g) Bermaturiko kalitatea duten lanen dohainetan edo dohaintzetan, balorazioa Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak egingo du, eta horrek, gainera, lanaren kalitatea ere baloratuko du.
  - h) Dohainezko zerbitzugintzetan, zerbitzugintzaren kostua, lagatutako ondasunen amortizazioa, halakorik badago, horren barnean dela.
2. Aurreko atalean ezarritakoaren arabera zehaztutako balioaren gehieneko muga, bestalde, eskualdaturiko ondasunak edo eskubideak merkatuan (eskualdatzeko unean) duen ohiko balioa izango da.

### **21.artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuotaren kenkaria.**

- 1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik kentzeko foru arau honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko kenkariaren oinarriaren %20.
- 2. Kenkari honen oinarria ezin daiteke Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako oinarri likidagarriaren % 30 baino handiagoa izan.

### **22.artikulua. Dohaintzen kentzea, Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zehaztapenean.**

Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zehaztapenerako, gastu kengarritzat hartuko da dohainen, dohaintzen, ekarpenen eta dohainezko zerbitzugintzen zenbatekoa, horiek foru arau honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuta.

Artikulu honetan zerga-oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate-emaizaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorpen-epea amaituta badago.

### **23.artikulua. Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kuota kentzea.**

- 1. Egoitza iraunkorrik gabe jarduten duten Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek kentzearen oinarriaren 100eko 25a kentzeko eskubidea izango dute kuota osotik, eta kentzea foru arau honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da; horretarako, beharrezkoa izango da dohaintza-dohaina edo ekarpena egin eta hurrengo urtebetearen barruan gertaturiko zerga-egitateen eraginezko aitorpenak aurkeztea, aipaturiko zergari dagokionez.

Kentzearen oinarriak ezin izango du gainditu epe horretan aurkeztutako aitorpenen multzo osoaren zerga-oinarriaren 100eko 10a.

- 2. Egoitza iraunkor baten bitartez diharduten Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek foru arau honetako aurreko artikuluan ezarritako kentzea aplikatu ahal izango dute.

### **24.artikulua. Dohainen, dohaintzen eta ekarpenen ondoriozko errenten salbuespena.**

- 1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik, Sozietateen gaineko Zergatik edo Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergatik salbuespena egongo dira (dohaintza-emailearen edo ekarlearen errenta zergapetzen duten zergak) foru arau honetako 19. artikuluan aipaturiko

dohainen,dohaintzen eta ekarpenen eraginez adierazitako ondare-irabaziak eta errenta positiboak.

2. Hiri Izaerako Lurren Balioaren Hazkundearen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira lur-eskualdatzeetan adierazitako gorakadak,edo jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan adierazten direnak,horiek foru arau honetako 19.artikuluari aipaturiko dohainen,dohaintzen eta ekarpenen ondorioz egiten direnean.

#### **25.artikuluua. Dohain,dohaintza eta ekarpen kengarrien justifikazioa.**

1. Dohain,dohaintza eta ekarpen kengarrien eraginkortasuna erakunde onuradunak emandako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da,araz ezarritako baldintzekin.
2. Erakunde onuradunak emandako ziurtagiriei buruzko informazioa bidali beharko dio Zerga Administrazioari,araz ezarritako moduan eta epeetan.
3. Aurreko ataletan aipaturiko ziurtagirian,gutxienez honako hau jaso beharko da:
  - a) Dohaintza-emaiaren eta erakunde dohaintza-hartzailearen Zerga-identifikazioaren zenbakia eta identifikazio pertsonalaren datuak.
  - b) Erakunde dohaintza-hartzailea foru arau honetako 18.artikuluari araututakoen artean egoteari buruzko berariazko aipamena.
  - c) Dohaintzaren data eta zenbatekoa,gori diruzkoa denean.
  - d) Agiri publikoa edo benetako beste agiriren bat,dohaintzan emandako ondasunaren ematea egiaztatzeko,dirutan egindako dohaintzak ez direnean.
  - e) Erakunde dohaintza-hartzaileak dohaintzan eman den gauzari emango dion helburua,bere helburu berezia betetzeko.
  - f) Dohaintzaren izaera ezeztazinenaren berariazko aipamena,dohaintzen ezeztapenak arautzen dituzten arauzko agindu zibiletan ezarritakoaren kalterik gabe.

### **III. KAPITULUA BESTE MEZENASGO MODU BATZUEN ZERGA ARAUBIDEA**

#### **26.artikuluua. Enpresa-lankidetzako hitzarmenak interes orokorreko jardueretan.**

1. Interes orokorreko jardueretako enpresa-lankidetzako hitzarmenetan,foru arau honetan ezarritakoaren ondoretarako, aurreko 18.artikuluari aipaturiko erakundeek (erakundearen helburu edo xede berezia betetzeko jardueretarako dirulaguntza baten truke)konpromiso idatzia hartzen dute kolaboratzaileak jarduera horietako partaidetza edozein bideren bitartez hedatzeko.

Kolaboratzailearen partaidetzaren hedapena,artikulu honetan zehazturiko lankidetzahitzarmenen eremuan,ez da zerbitzu ematea.

2. Ordaindutako zenbatekoak edo egindako gastuak kengarriak izango dira,erakunde laguntzailearen Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko,edo zergadunen Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko,zergadunok egoitza iraunkorraren bitartez dihardutenean,edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kalkulu zuzeneko metodoaren barruko zergadunen jarduera ekonomikoaren errendimendu garbia zehazteko.

Zenbaki honetan zerga-oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate-emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari

buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten-epea amaituta badago.

3. Lankidetzaren hitzarmen horiek betetzeko ordaindutako zenbatekoei aplikatu beharreko zerga-arabidea ez da bateragarria izango foru arau honetan ezarritako gainerako zerga-pizgarriekin.

### **27.artikulua. Interes orokorreko jardueretan egindako gastuak.**

1. Egoitza iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko,edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kalkulu zuzeneko metodoari loturiko zergadunen jarduera ekonomikoaren errendimendu garbia kalkulatzeko,interes orokorreko helburuetarako egindako gastuak kengarrizat hartuko dira.

Zenbaki honetan zerga-oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate-emaitzaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten-epea amaituta badago.

2. Interes orokorreko jardueretarako gastuetan aplikatu beharreko kentzea (aurreko atalean aipatutakoa)ez da bateragarria izango foru arau honetan ezarritako gainerako zerga-pizgarriekin.

### **28.artikulua. Arte-lanak eskuratzea,dohaintzan eskaintzeko.**

1. Egoitza iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko,eta kalkulu zuzeneko enpresaburuen eta profesionalen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria kalkulatzeko,partida kengarrizat hartuko da II.tituluko I.kapituluan aipaturiko erakundeei dohaintzan emateko arte-lanen eskuratze-balioa,baita foru arau honetako III.tituluko II.kapituluaren erakunde onuraduntzat aplikagarri duten erakundeei dohaintzan emateko arte-lanen eskuratze-balioa ere,erakundeok hori onartuz gero.

Artikulu honen ondoretarako,arte-lanak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudian zehazturiko arte-lanak,antzinako gauzak eta bildumako gaiak izango dira,baldin eta balio historikoa edo artistikoa badute.

2. Kentze hori lortzeko,dohaintzaren eskaintza honako baldintza hauen arabera egin beharko da:
  - a) Ondasuna erakunde dohaintza-hartzaileei gehienez jota 5 urteko epean eskualdatzeko konpromisoa,eskaintza behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita.Behin betiko onartzeko,berriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren txostena beharko da,bai ondasunaren nahiz arte-lanaren kalifikazioa eta bai horren balorazioa zehazteko.Txoten hori hiru hilabeteko epean bidali behar da, dohaintzaren eskaintza aurkezten denetik zenbatzen hasita.

Dohaintzan emandako arte-lanak Euskal Herriko Kultura Ondarearen barruan daudenean,Kalifikaturiko Kultura Ondarearen Erregistroan inskribaturik daudenean edo Euskal Herriko Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipaturiko Inbentario Orokorrean jasota daudenean,txosten hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatu beharko zaio.Ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipaturiko Ondare Historikoaren edo edozein autonomia erkidegoko Ondare Historikoaren barruko arte-lanak izanez gero,txostena organo eskudunei eskatu beharko zaie,kasuan kasuko arauak kontuan hartuta.

Erakunde dohaintza-hartzaileak dohaintza onartzen duenean, hori atzerazina izango da eta ondasuna ezin izango zaie gainontzekoei eman.

- b) Erakundeek edo pertsonak ondasuna erosi eta hurrengo hilaren barruan eskaini beharko dute dohaintza.
  - c) Ondasuna erakunde dohaintza-hartzaileari behin betiko eskualdatu arteko aldiari, ondasuna eskuragarri egongo da, jende aurrean azaltzeko eta ikertzeko, dohaintza-emailearen eta erakunde dohaintza-hartzailearen artean egindako hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
  - d) Aldi horretan, kentze honi atxikitzen zaizkion pertsonak ezin izango dute balio-galtzearen bidezko dohaintzarik egin, eskaintzan sarturiko ondasunei dagokienez.
  - e) Erakundea likidatuz gero, arte-lanaren jabetza erakunde dohaintza-hartzaileari adjudikatuko zaio.
  - f) Eskaintza jasotzen duen erakunde dohaintza-hartzailea foru arau honetako II. tituluko I. kapituluan jasota dagoenean, bertako bazkideek, sortzaileek, nagusiek, gerenteez eta ezkontideek, egitatezko bikoteek —maiatzaren 7ko 2/2003. Legean xedatutakoaren arabera eraturikoak —nahiz familiakoek (laugarren mailara artekoek) ezin izango dute pizgarri hori jaso.
3. Guztizko kantitate kengarriak ondasuna eskuratzeko kostuaren edo Administrazioak finkaturiko tasazio-balioaren berdinak izango dira, azken hori txikiagoa denean. Azken kasu horretan, erakundeak egindako dohaintza-eskaintza kentzeko aukera dauka, komenigarri baderitzo.
  4. Kentzea zati berdinetan egingo da, hitzarturiko aldiaren barruan, aurreko 2. ataleko a) letran ezarritakoaren arabera, eta ekitaldi bakoitzeko gehieneko muga, berriz, aldiaren barruko urte kopurua hamarrekin zatitzearen ondoriozko ehunekoa izango da. Muga hori zerga-oinarriari buruzkoa da. Enpresaburuen eta profesionalen kasuan, muga horren zenbaketa, egin ere, kasuan kasuko enpresa-jardueraren edo jarduera profesionalaren eraginezko errendimendu garbiei dagozkien zerga-oinarriaren zatiaren arabera ezarriko da.
  5. Artikulu honetan zerga-oinarria zehazteko aipatzen den kontabilitate-emaizaren zuzenketa autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitopen-epea amaituta badago.
  6. Artikulu honetan ezarritako kentzea, ondasun berari dagokionez, ez da bateragarria izango foru arau honetako 21, 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kenketekin.

#### **IV. KAPITULUA**

### **LEHENTASUNEZKO JARDUEREI ETA INTERES PUBLIKO HANDIKO GERTAERAK BULTZATZEKO PROGRAMEI APLIKATZEKO MODUKO ZERGA HOBARIK**

#### **29. artikulua. Mezenasgoko lehentasunezko jarduerak.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak mezenasgoko lehentasunezko jardueren zerrenda ezar dezake ekitaldi bakoitzerako, interes orokorreko helburuen eremuan; halaber, erakunde onuradunak eta jarduerak bete beharreko baldintzak ere ezarriko ditu. Horiei guztiei honako zerga-hobari hauek aplikatuko zaizkie:
  - a) Lehentasunezko hartutako jardueretarako zenbatekoak gastu kengarritzat joko dira, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari, egoitza iraunkorraren bitartez jarduten dutenean, eta, kalkulu zuzeneko araubidean dauden enpresaburuen eta profesionalen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari.
  - b) Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek edo establezimendu iraunkorren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek lehentasunezko hartutako

jotako jardueretara bideratutako kopuruen %18 ken dezakete kuota likidotik, baita publizitate- babeseko kontratuak direla bide emandako kopuruak direnean ere.

Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten-epea amaituta badago.

- c) Kalkulu zuzeneko araubideko jarduera ekonomikoak garatzen dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 18a kendu ahal izango dute kuota osotik, lehentasunezko hartutako jardueretarako zenbatekoei dagokienez, eta horren barruan, berriz, publizitate-babeseko kontratuen ondorioz ordaindutako zenbatekoak sartuko dira.
- d) Aurreko letran sartu gabeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 30a kendu ahal izango dute kuota osotik, lehentasunezko hartutako jardueretarako zenbatekoei dagokienez.

Aurreko c) eta d) letretan ezarritako kentzearen oinarria mezenasgoaren eraginezko kentzeen multzoaren oinarrian sartuko da (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauan adierazitako kentzeak), foru arau horretan ezarritako mugen ondoretarako.

- 2. Kentzeak aplikatzeko ekitaldia kasuan kasuko lehentasunezko jarduerak egitekoa izango da.
- 3. Artikulu honetan jasotako zerga-hobariak ez dira batera- garriak izango foru arau honetako 21., 22. eta 23. artikuluetan jasotakoekin.
- 4. Artikulu honetan ezarritako zerga-araubidea erabiltzeko, subjektu pasiboak, kasuan kasuko Zergaren aitorenarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Sail eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du; ziurtagiri horretan, kentzea jaso duten zenbatekoak erabili dituzten jarduerak ekitaldi horretarako lehentasunezkoak direla ziurtatu beharko da, baita horiek araz ezarritako baldintzak betetzen dituztela ere.

### **30. artikulua. Interes publiko bereziko gertaerretarako programak.**

- 1. Bizkaiko Foru Aldundiak, salbuespenez, interes publiko bereziko gertaerretarako laguntza-programak onetsi ahal izango ditu.
- 2. Programa onesten duen Foru Dekretuak gutxienez honako hau arautuko du:
  - a) Programaren iraupena (hiru urte bitartekoa).
  - b) Programa betearazten duen eta egindako gastuak nahiz inbertsioak programaren helburuetara zein planetara egokitzen direla ziurtatzen duen administrazio-organoaren sorrera.

Organo horretan, gertaeran interesa duten herri administrazioak egongo dira ordezkaturak, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila ere.

Ziurtagiria jasotzeko, beharrezkoa da Ogasun eta Finantza Sailaren ordezkartzaren aldeko botoa.

- c) Gertaera bultzatzeko antolatuko diren jardueren oinarritzko lerroak, administrazio-organoak hori gero jarduera berezietarako planetan eta programetan garatzearen kalterik gabe.
- 3. Programei aplikatzeko moduko zerga-hobariak honako hauek izango dira:



**Lehenengo.** Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek, kalkulu zuzeneko araubidearen barruko jarduera ekonomikoak egiten dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta egoitza iraunkorraren bitartez diharduten Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek gastuen eta inbertsioen 100eko 15a kendu ahal izango dute zergaren kuota likidotik, baldin eta, kasuan kasuko administrazio-organoak ezarritako jardueren planak eta programak betetzeko, honako hau egiten badute:

- a) Ibilgetu materialaren elementu berriak eskuratzea, eta lurrak ez dira inoiz ere halakotzat hartuko.

Telekomunikazioen edo elektrizitatearen zerbitzu-sareak instalatzeko edo handitzeko eta ura, gasa nahiz beste hornidura batzuk hornitzeako egiten diren inbertsioak, berriz, kasuan kasuko administrazio organoak ezarritako jardueren planak eta programak betetzeko egiten ez direla joko da.

- b) Eraginpeko eremu fisikoa dotoretzeko lagungarriak diren eraikinak eta beste eraikuntza batzuk berriro doitzea.

Obra horiek etxebizitzaren arloko babesturiko jarduketan finantziarioari buruzko araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita programaren eraginpeko udalek eta berori antolatzeke nahiz bete-tzeko ardura duen administrazio-organoak horri buruz ezarritako arau arkitektonikoak eta hirigintzakoak ere.

- c) Urte anitzerako propaganda- eta publizitate-gastuak egitea, horiek kasuan kasuko gertaera sustatzeko baliozkoak direnean.

Publizitate-euskarriaren edukia, funtsean, gertaeraren zabalkundea egiteko denean, kenkariaren oinarria egindako inbertsioaren zenbateko osoa izango da. Bestela, kenkariaren oinarria inbertsio horren ehuneko 25 izango da.

Lehenengo azpizenbaki honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitopenepea amaituta badago.

**Bigarren.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta egoitza iraunkorraren bitartez diharduten Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, hurrenez hurren, foru arau honetako 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kenteetarako eskubidea izango dute, aurreko atalean ezarritakoaren arabera sortzen den organoaren alde egindako dohaintzen eta ekarpenen ondorioz.

Aurreko atalean ezarritako lehenasuneko mezenasgo-araubidea aplikagarria izango da gertaerarekin lortutako programetan eta jardueretan, baldin eta horiek betearazteko ardura duen administrazio-organoak onesten baditu eta foru arau honetako 4. artikulua aipatutako erakundeek edo organo horrek egiten badituzte.

**Hirugarren.** Ondare Eskualdatzei eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoei buruzko Zergari lotutako eskualdatzeek 100eko 95eko hoberia izango dute kuotan, eskuraturiko ondasunak eta eskubideak (zuzen-zuzen) atal honetako lehenengo puntuan aipaturiko kente- eskubidedun inbertsioetarako erabiltzen baditu subjektu pasiboak.

**Laugarren.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 95eko hoberia izango dute kuotetan errekaruetan, kasuan kasuko gertaeran egin beharreko jarduera artistikoei, kulturei, zientifikoei edo kirolekoei dagokienez, baldin eta jarduera horiek administrazio-organo eskudunak prestatutako jardueren planetan eta programetan sartzen badira.



**Bostgarren.** Kasuan kasuko programaren helburuak garatzen dituzten enpresek edo erakundeek 100eko 95eko hobaria izango dute, programa horren garapenari soilik lotutako eragiketen gaineko tokiko zerga eta tasa guztietan.

4. Zerga-administrazioak zerga-hobarien aplikaziorako behar diren egoerak edo baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta, behar izanez gero, bidezko arauketa egingo du.
5. Foru Dekretuak interes publiko bereziko gertaerak bultzatzeko programetan ezarritako zerga-hobarien aplikaziorako prozedura ezarriko du.

### **31.artikulua. Elkarrekotasuna.**

Aurreko bi artikuluetan lehentasunezko jardueretarako eta interes publiko bereziko gertaerak bultzatzeko programetarako ezarritako zerga-hobariak aplikagarriak izango dira Estatuko eta Foru Lurraldeetako organo eskudunek halakotzat hartzen dituzten jardueretan eta programetan, baldin eta horiek onetsitako araudian elkarrekin onartzen badira Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako jarduerak eta programak.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren aldaketa.**

Aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko 80.artikulua, eta hori honelaxe idatzita geldituko da:

«80.artikulua. Mezenasgoko jardueren eraginezko kentzeak

Zergadunek irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko foru arauetan zerga honetarako ezarrita dauden kentzeak aplikatu ahal izango dituzte. Artikulu honetan aipaturiko kentzearen oinarriak ez du inoiz ere gutxituriko zerga-oinarriaren 100eko 30a gaindituko, foru arau honetako 61. eta 62. artikuluetan jasotako kentzeetan.»

### **Bigarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren aldaketa**

1. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29.artikuluko 2. ataleko e) letra, eta hori ondoren adierazitakoaren arabera idatzita geldituko da:

«e) Irabazizkoak ez diren erakundeek eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea aplikagarri ez duten irabazizkoak ez diren erakundeak.»

2. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29.artikuluko 4. atala, eta hori honelaxe idatzita geldituko da:

«4. Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea aplikagarri duten erakundeek 100eko 10ean ordainduko dituzte zergak.»

3. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29.artikuluko 9. atala, eta hori honelaxe idatzita geldituko da.

«9. Zerga-babesa duten sozietate kooperatiboek 100eko 21eko tasan ordainduko dituzte zergak. Hala eta guztiz ere, zerga babesa duten kooperatiba txikiak, foru arau honetako 49. artikuluan enpresa txikitzat hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenean, 100eko 19ko tasa aplikatuko diote 0 eta 100.000 euro bitarteko oinarri likidagarriaren zatiari, eta 100eko 21eko tasa, berriz, oinarri likidagarriaren gainerako zatiari.»

4. Aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 38.artikuluko izenburua eta artikuluko horretako 1. atala, eta horiek ondoren adierazitakoaren arabera idatzita gelditu dira.

«38.artikulua. Kultura Ondarea babesteko eta hedatzeko jardueren eta produkzio zinematografikoetan nahiz liburuen argitalpenean egindako inbertsioen eraginezko kentzea

1. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 15eko kuota likidoa kentzeko eskubidea edukiko dute,honako honetarako egiten diren inbertsioen edo gastuen zenbatekotik:

a) Euskal Herriko Kultura Ondarearen,Espainiako Ondare Historikoaren edo beste autonomia erkidegoren bateko ondarearen barruko ondasunak lortzea,ondasunok Espainiako lurraldetik kanpo eskuratzen direnean,bertako lurraldean sartzeko,baldin eta ondasunak bertan eta titularraren ondarearen barruan gelditzen badira,gutxienez hiru urtetan.Kentze horren oinarria,berriz,irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 20.artikuluko 1.ataleko f)letran ezarritakoaren arabera egindako balorazioa izango da.

b) Bere jabetzako ondasunak kontserbatzea,konpontzea,berritzea,hedatzea eta erakustea,baldin eta Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean (edo autonomia erkidegoen araudian)kultura-interesekotzat hartzen badira,araudi horretan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

c) Eraikinak berriro doitzea,horien teilatuak nahiz fatxadak mantentzea zein konpontzea eta azpiegiturak hobetzea,aldin eta Unescok Espainian kokaturiko Mundu Ondareztat adierazitako hirien edo multzo arkitektonikoen,arkeologikoen,naturalen edo paisaiakoen barruan badaude.»

**5. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 120.artikuluko a)letra,eta hori honelaxe idatzita geldituko da:**

«a) Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauan ezarritako zerga-araubidea edukitzeko baldintzak betetzen ez dituzten eta irabazizkoak ez diren erakundeak.»

**6. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 121.artikulua,eta hori honelaxe idatzita geldituko da:**

«121.artikulua. Salbuetsitako errentak

1. Aurreko artikuluan aipatutako erakundeek lorturiko errenta hauek salbuetsita egongo dira:

a) Euren helburu soziala edo xede berezia osatzen duten jarduerak egitearen ondoriozkoak.

b) Irabazizko eskuratzeen eta eskualdatzeen eraginezkoak, baldin eta batzuk eta besteak euren helburua edo xedea betetzeko lortzen edo egiten badira.

c) Helburu edo xede berezia egiteari lotutako ondasunen kostu bidezko eskualdatzean adierazten direnak,lortutako zenbateko osoa helburu edo xede horri lotutako inbertsio berrietarako erabiltzen denean. Inbertsio berriak,bestalde,ondare-elementua emateko dataren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen bitarteko epean egingo dira,eta gainera,zazpi urtetan edukiko dira erakundearen ondarearen barruan,euren bitzta erabilgarria (foru arau honetako 11. artikuluko 2.,3.,5.eta 6.ataletan onartutako amortizazio-metodoaren arabera,laburragoa denean izan ezik.

Inbertsio berria,berriz,kasuan kasuko ondare-elementuak ematen direnean egindakotzat hartuko da. Inbertsioa adierazitako epean egin ezean,lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia,berandutza-interesekin batera, epea amaitzeko zerga-aldiari dagokion kuotarekin batera ordainduko da.

Elementu horiek aipatutako epea amaitu orduko eskualdatuz gero,zergapetu gabeko errenta-zatiaren zerga-oinarria ordainduko da,lorturiko zenbatekoa berriro inbertitzen denean izan ezik.

2.Aurreko atalean aipatutako salbuespenaren barruan ez dira sartuko ustiapen ekonomikoaren errendimenduak,ondarearen eraginezko errentak eta eskualdatzeen ondoriozko errentak (atal horretan aipatzen ez direnak).

3.Ustiapen ekonomiko bateko errendimendutzat hartuko dira lan pertsonalaren eta kapitalaren ondoriozkoak (edo bi faktore horietariko baten ondoriozkoak),baldin eta subjektu pasiboak bere kontura antolatzen baditu produkzio-bideak eta giza baliabideak (edo bi faktore horietariko bat),ondasunen edo zerbitzuen produkzioan nahiz banaketan esku hartzeko.»

**7. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 122.artikulua,eta hori ondoren adierazitakoaren arabera idatzita geldituko da:**

«122.artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena

1. Zerga-oinarria foru arau honetako IV.tituluan ezarritako arauak aplikatuz kalkulatu da.

2. Foru Arau honetako 14.artikuluan ezarritakoak ez ezik, honako hauek ere ez dira gastu kengarritzat hartuko:

a) Salbuetsitako errentei soilik egozteko moduko gastuak.Salbuetsi gabeko errentei neurri batean egozteko modukoak diren gastuak kengarriak izango dira,salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoaren ekitaldian lortutako eragiketa bolumenak erakundearen guztizko eragiketa bolumenaren aldean egiten duen ehunekoan.

b) Emaizten aplikaziokoak diren zenbatekoak eta,hain zuzen ere,aurreko artikuluko 1.ataleko a)paragrafoan aipaturiko salbuetsitako jarduerak eusteko erabiltzen direnak.»

**8. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 126.artikuluko 1.atala,eta hori honelaxe idatzita geldituko da:**

«1. Zerga honen subjektu pasiboek Merkataritza Kodean edo eurak arautzen dituzten arauetan ezarritakoaren arabera eraman beharko dute kontabilitatea. Foru arau honetako VIII.tituluko XVI.kapituluan aipaturiko subjektu pasiboek,nolanahi ere,salbuetsi gabeko errenta eta ustiapen ekonomikoei dagozkien diru-sarrerak nahiz gastuak identifikatzeko moduan eramango dute kontabilitatea.»

**Hirugarrena. Ondare Eskualdatzeen eta Dokumentatu gabeko Egintza Juridikoen Zergari buruzko martxoaren 23ko 3/1989 Foru Arauaren aldaketa**

Aldatu egiten da Ondare Eskualdatzeen eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoen gaineko Zergari buruzko martxoaren 23ko 3/1989 Foru Arauaren 43.l A)artikulua,eta hori ondoren adierazitakoaren arabera idatzita geldituko da:

«l.

A)Zergatik salbuetsita egongo dira:

a) Estatua eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioak eta horien sailak (ongizatea,kultura,Gizarte Segurantza, irakaskuntza edo zientzia).

b) Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 4.artikuluaren aipaturiko irabazizkoak ez diren erakundeak,baldin eta Foru Arauko 16.artikuluaren ezarritakoaren arabera lotuta badaude zerga-araubidera.

c) Aurrezki-kutxak,euren lan sozialera zuzen-zuzen lotutako eskuratzeen ondorioz.

d) Eliza Katolikoa eta Espainiako estatuarekiko lankidetzak akordioak sinatuta dituzten elizak,konfesioak eta komunitate erlijiosoak.

e) Euskaltzaindia,Espainiako Institutua eta horren barruko Errege Akademiak,baita autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak.

f) Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Nazio Era- kunea.»

**Laugarrena. Euskaltzaindia,Espainiako Institutua eta Errege Akademiak.**

Foru arau honetako 17.artikuluaren ezarritakoa aplikagarria izango da Euskaltzaindiaren, Espainiako Institutuaren eta horren barruko Errege Akademien kasuan,baita euren hizkuntza ofiziala eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako erakundeetan ere.

**Bosgarrena. Gurutze Gorria eta ONCE.**

Foru arau honetako 17.artikuluaren ezarritakoa aplikagarria izango da Espainiako Gurutze Gorraren eta Espainiako Itsuen Nazio Erakundearen kasuan.

**Seigarrena. Erakunde erlijiosoen fundazioak.**

Foru arau honetan ezarritakoa Eliza Katolikoarekiko akordioetan eta Estatuak elizekin,konfesioekin eta komunitate erlijiosoekin sinaturiko lankidetzak-akordioetan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da,baita erakunde horien fundazioetarako emandako arauen kalterik gabe ere,eta horiek foru arau honetako 7-26 bitarteko artikuluetan ezarritako zerga-araubidea aukeratu ahal izango dute,baldin eta azken kasu horretan Erakunde Erlijiosoen Erregistroan inskribaturik egotearen ziurtagiria aurkezten badute eta foru arau honetako 5.artikuluko 4.zenbakian ezarritako baldintza betetzen badute.

**Zazpigarrena. Eliza Katolikoaren eta beste eliza,konfesio eta komunitate erlijioso batzuen zerga-araubidea.**

1. Foru arau honetako 7-17 bitarteko artikuluetan (biak barne)ezarritako araubidea aplikagarria izango da Eliza Katolikoaren eta Espainiako estatuarekiko lankidetzak-akordioak

sinatuta dituzten elizen, konfesioen eta komunitate erlijiosoen kasuan, aurreko Xedapen Gehigarrian aipaturiko akordioetan ezarritakoaren kalterik gabe.

2. Foru Arau honetan ezarritako araubidea, gainera, aplikagarria izango da Espainiako estatuaren eta Vatikanoren artean sinaturiko Gai Ekonomiei buruzko Akordioaren V. artikuluan jasotako elkarte eta erakunde erlijiosoen kasuan, baita Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onetsi duen azaroaren 10eko 24/1992 Legeko 11. artikuluko 5. atalean, Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onetsi duen azaroaren 10eko 25/1992 Legeko 11. artikuluko 5. atalean eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamiarren arteko Lankidetzak Akordioa onetsi duen azaroaren 10eko 26/1992 Legeko 11. artikuluko 4. atalean jasotako erakundeen kasuan ere, baldin eta erakundeok foru arau honek irabazizkoak ez diren erakundeei araubide hori aplikatzeko eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
3. Espainiako estatuaren eta Vatikanoren arteko Gai Ekonomikoei buruzko Akordioak IV. nahiz V. artikuluetan jasotako erakundeak (Eliza Katolikoaren barrukoak) eta Espainiako estatuak beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuekin sinaturiko lankidetzak akordioetan jasotako erakundeak mezenasgoaren erakunde onuraduntzat hartuko dira, foru arau honetako 18-26 bitarteko artikuluetan (biak barne) jasotakoaren arabera.

### **Zortzigarrena. Aurrezki Kutxen Lan Soziala.**

Irabazizkoak ez diren erakundeek aurrezki-kutxen lan sozialera bideratu ahal izango dute eurak desegitearen ondoriozko ondarea, baldin eta desegindako erakundearen fundazio-egozian edo estatutuetan berariaz jasota badago, eta kasu honetan 5. artikuluko 5. zenbakian jasotako kasua ez da aplikagarria izango.

### **Bederatzigarrena. Kirol-federazioak.**

1. Kirol-federazioek kirol-ikuskizunetan lortutako diru-sarrerak ez dira sartuko salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen diru-sarreraren 100eko 40aren zenbaketaren barruan (foru arau honetako 5. artikuluko 2. zenbakiko baldintzan aipaturiko zenbaketa).
2. Kirol-federazioek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, errenta horiek selekzio nazionalen edo autonomikoen lehiaketa ofizialen edo adiskidetasunezko lehiaketen ospakizunaren, emankizunen edo zabalkundearen ondoriozkoak direnean, baldin eta lehiaketa horien antolaketa euren eskumen eskusibokoa bada.
3. Foru arau honetako 5. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan jasotako baldintzak ezin izango zaizkie aplikatu xedapen gehigarri honetan araututako erakundeei.

### **Hamargarrena. Arauzko igorpenak.**

Herri Onurako Fundazioen eta Elkarteen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauan egindako arauzko igorpenak foru arau honetan ezarritakoaren arabera egindakotzat hartuko dira.

### **Hamaikagarrena. Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauaren aldaketa.**

Aldatu egiten dira Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauko 42. artikuluko 2. eta 3. atalak, eta horiek honelaxe idatzita geldituko dira:

«2. Sozietateen gaineko Zergan, Herri Onurako Kooperatibei eta Ekimen Sozialeko Kooperatibei aplikatzeko moduko zerga-araubidea irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 7-16 bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da. Pertsona juridikoek egindako dohaintzei nahiz ekarpenei, Herri Onurako Kooperatiben aldeko

enpresa-lankidetzako hitzarmenei eta Ekimen Sozialeko Kooperatibei, halaber, foru arau honetako 26.artikuluko III.tituluko II.kapituluko artikulua aplikatuko zaizkie.

3. Toki-zergetan, irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 17.artikuluan ezarritako zerga-araubidea aplikatuko zaie.

### **Hamabigarrena. Alderdi politikoaren zerga-araubidea.**

1. Alderdi politikoaren finantziarioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan aipatzen diren dohaintzei foru arau honetan aurrez ikusitako erregimena ezarriko zaie.
2. Bateriaezinak izango dira ekarpen edo dohaintza horientzat foru arau honetako 21.artikuluan aurrez ikusten den kengaria eta PFEZri buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko artikulua hauetan aurrez ikusitakoak: 22.artikuluko b) idatz-zatian arautzen den gastu kengarria, eta 95.artikuluaren 2.paragrafoan aurrez ikusitako kengaria.
3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauan aurrez ikusi gabeko arloetan, alderdi politiko eizergei buruzko arau orokorrak ezarriko zaizkie, eta, bereziki, foruarau honetan aurrez ikusitakoak.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehena. Herri Onurako Fundazioen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribatuko Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995.**

Foru Arauaren babesean emandako salbuespenen xedapen iragankorra. Foru arau honetako 4.artikuluan aipaturiko erakundeei emandako salbuespenak, Herri Onurako Fundazioen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribatuko Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauaren babesean emandakoak, indarrean egongo dira 2005eko abenduaren 31ra arte.

### **Bigarrena. Irabazizkoak ez diren erakundeek izendaturiko merkataritza-sozietateetako administratzaileen araubide iragankorra.**

Foru arau hau indarrean sartu baino lehenago eraturiko erakundeek (irabazizkoak ez direnak), II.tituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzea aukeratzen dutenek, 2004ko abenduaren 31ra bitarteko epea izango dute bertako 5.artikuluko 4.zenbakian ezarritako baldintza betetzeko, erakunde horiek euren partaidetza duten merkataritza-sozietateetan aukeraturiko administratzaileei dagokienez.

### **Hirugarrena. Estatutuen egokitzapena.**

Foru arau hau indarrean sartu baino lehenago eraturiko erakundeek (irabazizkoak ez direnak), II.tituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzea aukeratzen dutenek, 2005eko abenduaren 31ra bitarteko epea izango dute bertako 5.artikuluko 5.zenbakian ezarritakoa betetzeko.

### **Laugarrena. Zerga-araubide berezia aukeratzea.**

Foru arau honetako 16.artikuluan aipaturiko zerga-araubide berezia aukeratu dutela jotzeko, irabazizkoak ez diren erakundeek hauxe aplikatuta eduki beharko dute 2002ko ekitaldian: Herri Onurako Fundazioen eta Elkartearen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauaren edukia, baldin eta horien aplikazioari berariaz uko egiten ez badiote.

Era berean, aukera hori egindakotzat joko zaie Foru Arau horretan aipatutako araubidea 2003ko ekitaldian edo 2004.eko urtarrilaren 1etik Foru Arau hau indarrera dadin arte aukeratu duten irabazizkoak ez diren erakundeei, beti ere baldin eta horren aplikazioari berariaz uko egiten ez badiote.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

### **Lehena.**

Foru arau hau indarrean sartzean, indargabetuta geldituko dira bertan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak, hain zuzen ere, Herri Onurako Fundazioen eta Elkarleen Zerga Araubideari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga Pizgarriei buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Araua.

### **Bigarrena.**

Indargabetuta gelditzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko Zortzigarren Xedapen Gehigarria.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehena. Arauzko doikuntza.**

Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko xedapenak eman ditzake, foru arau hau garatzeko eta betearazteko, baita foru arau honetako 18. artikuluan aipaturiko mezenasgoaren erakunde onuradunak zehazteko ere.

### **Bigarrena. Indarrean sartzea.**

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zerga-aldietan izango ditu ondoreak, II. tituluko II. kapituluko eta Bigarren Xedapen Gehigarriko edukiaren kasuan izan ezik, horrek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan izango baititu ondoreak.